

EBAZPENA, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2017ko abenduaren 14koa, 2017-2018 ikasturtean pertsonal ikertzailearen prestakuntza-programarako dirulaguntza berriak eman eta dirulaguntza horiek berritzeko prozesua arautu eta deitzen duen Hezkuntza sailburuaren 2017ko maiatzaren 23ko aginduaren bidez deitutako dirulaguntzen berritzeak ebazten dituena.

Berritzeko eskaeren ebaluazioa eta Selektzio Batzordeak helarazitako proposamena kontuan hartuta eta aipatutako Aginduan xedatutakoa betez,

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ikertzaile ez doktoreen prestakuntzarako dirulaguntzen berritzea ematea, 2017-2018 ikasturterako, onuradun bakoitzak jasoko duen zenbateko gordina, ezarpen zentroa eta hauek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz. Baita ere, I modalitateko onuradun bakoitzak bidairako jasoko duen zenbatekoa aipatzen da.

Bigarrena.- Indarrean dauden lan kontratuak luzatu egingo dira 2017ko maiatzaren 23ko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Hirugarrena.- 2017ko maiatzaren 23ko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, ordaintzeko era, iraupena eta jasotzeko gainontzeko baldintzak.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza sailburuari gorako errekurtoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.eus egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko abenduaren 14an.


ADOLFO MORAIS EZQUERRO
Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea